

Bidasoa ♦ Bigarren zatian lau goleko aldea izan arren, azkenean berdindu egin zuen Valentzian

Opari garestiegia

Julio Fis eta Patrick Cazalen artean 21 gol egin zituzten atzo

Valentzia	Bidasoa
25	25

Valentzia. - Fosseng; Recatala, Peric (1p.), Cvjic (7), Quique Andreu (7, 1p.), Faguas (2, 1p.), Hernandez (3) —hasierako zazpikoa—; Luis Pardo, Serrano (5), Tarraso.

Bidasoa. - Barreto; David, Fis (11), Dominguez (1), Kempe (3), Cazal (10, 3p.), Fredsgaard —hasierako zazpikoa—; Etxaburu eta Enbil.

MARKAGAILUA: 3-4, 5-6, 7-6, 9-8, 10-10, 11-13 (atsedenaldia); 12-16, 14-18, 17-21, 20-23, 22-25 eta 25-25.

ARBITROAK: Iniesta eta Huget. Bi minutuz kanporatuak: Racatala, Peric Hernandez (2), Fredsgaard, Etxaburu, Enbil, Kempe eta David.



GARI GARATALDE

Patrick Cazalek eta Julio Fisek kanpotik traba handirik gabe jaurtitzeko aukera izan zuten atzo Valentzian.

Erredakzioa / Donostia

◀ **BIDASOAK** urrats garrantzitsua emateko aukera zuen atzo Valentzian laugarren posturako lehian, baina bi puntuak eskura izan arren azkenean bakarrarekin bueltatu dira irundarrak. Julian Ruizen taldeak erabat kontrolpean izan zuen partidua ia bigarren zati osoan. Baina une erabakigarrian kantxatik desagertu egin ziren. Partidua amaitzeko hiru minutu geratzen zirenean egin zuen

Julio Fisek Bidasoaren azken gola izango zena, eta 22-25ekoa ezarri. Hortik aurrera, Valentziak bakarrik jokatu zuen. Cvjicek partidua amaitzeko 25 segundo falta zirela berdindu zuen partidua. Bidasoak azken jokaldia egiteko aukera zuen, baina Pardo atezainak baloia gelditu eta azken kontraerasoan Serranok Valentziari garaipena emateko aukera izan zuen. Balloia langara bidali zuen.

Julian Ruiz: «Ez da lehen aldia»

■ JULIAN RUIZ kexu zen atzo bere jokalariek azken minutuetan egindako hutsekin: «Ez da horrelako zerbait gertatzen zaigun lehen aldia. Behin baino gehiagotan, aurkaria menperatu ostean, partidutik joan eta azkenean berdintu edo galdu egin dugu. Uste dut ez dakigula defentsa eroak eraso-

tzeko gaitasunik. Norbako en akatsak dira. Partiduari ongi ekin diogu, baina badira egoera batzuk entrenatzaileak aurreikusi ezin dituenak, eta hor jokalariek burua erabili behar dute. Puntu hau on da azpitik daudenak urrun mantentzeko, baina ez da nahikoa sailkapenean gora egiteko».



PABLO S. QUIZA

Mendizaleak euskal selekzioaren alde

Everest mendia igotzeko asmoarekin abiatu diren Euskaltel espedizioa hiru mendizaleek euskal selekzioaren aldeko ekimena egin zuten atzo Tolosan. Taldea osatzen duten Edurne Pasaban, Angel Navas eta Guillermo Bañalesek euskal selekzioa aldarrikatzen duen pankartarekin agertu ziren atzo Tolosako Triangelu plazan.

Zaldi lasterketak ♦

Gaur hasiko da Donostiako Udaberriko denboraldia

26 lasterketa jokatu dira bost egunetan, eta 200 zaldi baino gehiagok parte hartuko dute

Erredakzioa / Donostia

◀ **UDAKO** denboraldiaren sarrera moduan, gaur hasiko da zaldi lasterketen Donostiako hipodromoko udaberriko denboraldia. Guztira 26 lasterketa jokatu dira, bost saiotan, eta denboraldiak bi hilabete inguru iraungo du. 200 zaldi baino gehiagok parte hartzea espero dute antolatzaileek. Gaurko saioak bost lasterketa izango ditu, eta 16:30etan hasiko da. Guztira 82 zaldi lehiatuko dira.

Arratsaldeko lasterketa garrantzitsuen bosgarrena izango da, El Diario Vasco saria. Zaldiek 1.400 metro korritu beharko dituzte eta irabazleak 600.000 pezeta (24.000 libera inguru) jasoko ditu. Parte hartuko dute, besteak beste, iazko Eusko Jaurlaritzaren sarian lehen hiru postuetan iritsi ziren zaldiek, hau da, Baryshnikov, Viridiano eta Almagrok.

Aurrekoaz gain, gaurko saioa beste lau lasterketek osatuko dute. Alde batetik, oraindik garaipenik lortu ez duten hiru urteko zaldientzako hiru lasterketa izango dira: Peña Hipica L \$ L (1.500 metro) eta A Galopar aldizkaria (2.000 metro) sariak. Bestetik, bi lehiatan banatuko den handicapa: Sayc Aholkularitza (2.000 metro) eta Radio San Sebastian sariak (2.000 metro).

Espainiako 'raid' txapelketa Gasteizen

Donostia ez da izango zaldi lasterketen Euskal Herriko erreferentzia bakarra. Izan ere, Gasteizen jokatu da Zaldien Espainiako Raid txapelketa, datorren apirilaren 22an. Raid motako zaldi lasterketak mendiko pistetan zehar egiten dira eta iraupen luzeak dira, 160 kilometro ingurukoak.